

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

##### Euskara Zerbitzua

#### **Haur eta gazte literaturaren alorrean euskarara egindako eta 2020ko lege gordailua duten itzulpenik hoberenentzako Vitoria-Gasteiz sariak ematea**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko martxoaren 12an egindako bilkuran, 2020ko lege-gordailuarekin argitaratutako haur- eta gazte-literaturako lanen euskarazko itzulpen onenentzako Vitoria-Gasteiz sarien (2021ko edizioa) deialdiaren baitako oinarriak onartu zituen. Oinarri horiek 2021eko apirilaren 9an Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Deialdiaren bederatzigarren oinarrian epaimahaia izendatu zen, honakoek osatua: Karlos del Olmo Serna, Aintzane Atela Gurrutxaga, Ainara Ruiz Benito, Miren Ibarluzea Santisteban eta Karlos Zabala Oiartzabal. Halaber, Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzuko burua idazkari lanak egiteko izendatu zen.

Hamasei lan aurkeztu ziren, hamar haurren sailean eta sei gazteen sailean. 2021ko irailaren 16an, epaimahaia erabaki hauek hartzea proposatu zion Tokiko Gobernu Batzarrari:

Haur-kategoriako saria ematea Aiora Jakari, 9.000 eurokoa, "Onin eta sorginen sekretua" lanagatik. Ibon Martínen "Onin y el secreto de las brujas" liburuaren itzulpenagatik.

Gazte-kategoriako saria ematea Miren Agur Meaberi, 9.000 eurokoa, "Zirkulu gorrimina" lanagatik. César Mallorquíren "El círculo escarlata" lanaren itzulpenagatik.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko azaroaren 12an egindako ohiko bilkuran emandako ebazpenaren bidez hartu zen erabaki hori.

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Udal Sailaren Euskara Zerbitzuko 2021eko ekitaldiko aurrekontuetako 2021/0171.3351.48005 partidari jasotako aurrekontu-kredituko 18.000 euroetatik 9.000 euroko bi sariak ordainduko dira. Saritutako pertsona bakoitzari dagokion atxikipen fiskala aplikatuko zaio, aurrez adierazitako kopuruan.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 22an

*Alkatetza eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**RAIMUNDO RUÍZ DE ESCUDERO EZCURRA**